



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2011ko urriaren 14a

18. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hizkuntza-proiektuak ezartzeko irizpideak zehatz ditzan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren zuzemenak egin ditzan Iruñerrirako frekuentzia gehiago lortze aldera. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Iruzur Fiskalaren Aurkako gaur egungo Plana alda dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez dezan neurririk edo konpromiso publikorik har hondakinen errausketa-sistema ezartzeari dagokionez. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak gaitzesten du Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren jardun politikoa, 2011rako Nafarroako aurrekontu orokorrekin eginiko kudeaketagatik. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berehala jar dezan abian koloneko minbizia-
ren detekzio goiztiarrerako programa. Mozioa erretiratzea (9. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna helarazten baitio Kongoko herriari. Eledunen Batzarrak onetsia (9. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, “Beste doitze-neurri batzuk” modura definituriko 61,76 milioi euroko murrizketek ukituko dituzten kontusailei buruzkoa, Juan Carlos Longás García jaunak egina (10. or.).
- Galdera, zenbait kontusail zor gisa kontabilizatzeko erabili diren irizpideei buruzkoa, Juan Carlos Longás García jaunak egina (11. or.).
- Galdera, Gehiegizko Defizitaren Protokoloak ezarritako defizitaren azken kopurura iristeko beharrezkoak diren kontabilitate nazionalaren doikuntzen osagaiei buruzkoa, Juan Carlos Longás García jaunak egina (11. or.).

- Galdera, Biurdana ikastetxean ikasleen metaketa saihesteko hartuko diren neurriei buruzkoa, Aitziber Sarasola Jaca andreak egina (12. or.).
- Galdera, Nafarroako Kulturaren Plan Estrategikoa garatzeko abian jarritako jarduketei buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (13. or.).
- Galdera, jakiteko zenbat denbora beharko duten Alderdi Sozialistako kideek Nafarroako Gobernuan haien jarduna profesionaltasunez eta ebazte-gaitasunez garatzeko, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (13. or.).
- Galdera, aurrekontuen murrizketak izaten ari diren eraginaren gaineko aurreikuspen kuantitatibo kalkulatuari buruzkoa, Bikendi Barea Aiestaran jaunak egina (14. or.).
- Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Minbiziaren Ospitale Erregistroaren garapen-mailari buruzkoa, Marisa De Simón Caballero andreak egina (15. or.).
- Galdera, Administrazio Publikoko teknikari lanpostuetarako oposizioan plika-sistema aldatzeari buruzkoa, José Miguel Nuin Moreno jaunak egina (15. or.).
- Galdera, Nafarroako Kutxak gizarte-ekintzara bideratutako diru kopurua murrizteari buruzkoa, Santiago Cervera Soto jaunak egina (16. or.).
- Galdera, Josefina Arregui klinikak ematen duen prestazioa Altsasuko udalerririk katalogoaz gain eman nahi duen zerbitzua dela dioen iritzitari buruzkoa, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egina (17. or.).
- Galdera, Osasunbideak barne-erabilerarako botika aukeratzeko jarraitu duen irizpideari buruzkoa, Bakartxo Ruiz Jaso andreak egina (18. or.).
- Galdera, Atzerritarren Legearen garapenak eskatzen dituen integrazio-txostenak prestatzeko erabilitako irizpideei buruzkoa, Nekane Pérez Irazabal andreak egina (19. or.).
- Galdera, gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen den tributuen % 0,7a dela-eta izandako diru-bilketari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (19. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Elkarbizitza eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordea. Ordezkapena (21. or.).

H SAILA:**Bestelako testu arau-emaeak:**

- 1/2011 Foru Lege-dekretua, urriaren 6koa, defizit helburua betetzeko hainbat neurri onesten dituen (22. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hizkuntza-proiektuak ezartzeko irizpideak zehatz ditzan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita hizkuntza-proiektuak ezartzeko irizpideak zehatz ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Gobernu honek sarritan baieztatu du apustu argia egiten duela ingelesa irakaskuntzako irakaskuntza sartzearen alde, eta horretarako zenbait aukera baliatu ditu: British eredu, atal elebidunak eta TIL eredu. Esperimentu gisa sartu ziren, eta batzuek beste batzuek baino urte gehiago badaramate ere, ez daukagu horiei buruzko inolako balio-

espenik. Logikoa dirudi ildo horiek jorratzen jarraitu aitzin edo programa horiek irakaskuntzako beste etapa batzuetara hedatu aitzin ikus dezagun zer emaitza lortzen diren, hala emandako irakaskaietan nola erabilitako hizkuntzan. Badira zenbait urte esan zenetik programa horiei falta zitzaizela errealitate soziologikoari eta aplikatzeko moduari buruzko funtsezko hausnarketa, hausnarketa has-tapenetan zegoela, eta guk ez dakigu zertan gelditu zen hausnarketa hori. Gure ustez, beharrezkoa da jakitea zer irizpide baliatzen diren erabakitze aldera zer irakasgai eskaini, atzerriko hizkuntza bat sartzeko irakasgaiaren helburuak ukitzen ote dituen, eredu horietan nola egiten zaien aurre hezkuntza premia bereziei, irakashizkuntzaren gaineko ezagutza hobetzen ote den eta zer neurritan hobetzen den.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen du argiro zehatz ditzan bai hizkuntza-proiektu bakoitza ezartzeko baliatzen diren irizpideak, bai kasuan-kasuan lortu nahi diren helburuak eta baita helburu horien balioespen-sistema ere.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen du atzerriko hizkuntzak irakashizkuntza gisa sartzeko baliatutako ereduaren ebaluazioa egin dezan, hala irakasgaietan nola baliatutako hizkuntzetan izandako emaitzena.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren zuzemenak egin ditzan Iruñerrirako frekuentzia gehiago lortze aldera.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita beharrezkoak diren zuzemenak egin ditzan Iruñerrirako frekuentzia gehiago lortze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko:

FM bidezko irratidifusioko plan teknikoa onesten duen irailaren 1eko 964/2006 Errege Dekretuaren arabera, Nafarroako Gobernuak 42 irradi fre-

kuentzia ditu esleitu gabe. Harrigarria bada ere, frekuentzia horiek ez dira lehiaketara atera urteotan, nahiz eta badiren komunikazio-premia behar bezala bete gabeak eta, bestetik, lizentzia bat lortu nahi duten irratiak.

Kontseilariak, Jiménez jaunak, batzordean egindako lehen agerraldian iragarri zuen laster emanen zaiola erantzun bat auzi horri; izan ere, 42 frekuentzia horien lehiaketa egitea aurreikusi da, eta frekuentzia-kopurua handia dela eman lezakeen arren, horietako bi bakarrik dagozkio Iruñari. Horrenbestez, litekeena da beharrianak ez asetzea. Orain arte lku-entzunezkoen Kontseiluko lehendakari izandakoak adierazi zuenez, auzi hori konpon liteke arlo horretako eskumena duen Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioari lizentzia-kopurua handitzeko eskatuta.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du egin beharreko zuzemenak egin ditzan Iruñerrirako ahalik eta frekuentzia-kopuru handiena lortzeko, halako moduan non hurrengo lehiaketan Iruñerriaren komunikazio-premiei erantzun bat eman ahal izanen baitzaie.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Iruzur Fiskalaren Aurkako gaur egungo Plana alda dezan.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Iruzur Fiskalaren Aurkako gaur egungo Plana alda dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko. Honen bidez, eskatzen da Iruzur Fiskalaren Aurkako 2012ko Plan indarduna alda dadila eta 2015era bitarteko plan berri bat egin dadila.

Iruzur Fiskalaren Aurkako Plan indarduneari lortutako emaitzak urtero ematen dira jakitera. Plan indardun hori 2012ra bitartekoa da. Berreskuratu den diru-kopuruaz haratago, herritarrak, oro har, seguru daude, eta parlamentu-talde hau bat dator haiekin, konpontzeko dagoen arazo bat dela zerga iruzurrarena. Izan ere, gutxi gorabeherako kalkulurik ere ez da egin, detektatu gabeko iruzurra, guztira, zenbatekoa izan daitekeen jakiteko.

Gizarteak ondorio larriak ordaindu behar ditu iruzur fiskalaren ondorioz: diru-sarrerara publikoak murrizten dira, eta horrek eragin nabarmena du hitzeko zergadunek jasaten duten presio fiskalean; zerbitzu publikoen eta gizarte-prestazioen kalitatea baldintzatzen du; eta eragile ekonomikoen jarduera distortsionatzen du, halako moduan non zergak ordaintzen dituzten enpresek zergarik ordaintzen ez dutenen bidegabeko lehia pairatu behar baitute.

Finean, iruzur fiskala da tributu-sistema oren ekitate-ezaren osagai nagusia. Botere publikoek jarrera iruzurgileen aurrean izan beharreko jokabideak ez du soilik bilatu behar iruzurra detektatzea eta iruzurraren tributu-erregularizazioa, orobat bilatu behar baitu ez-betetze horiek gertatzea, azpimarra jarrita iruzurraren aurkako borrokaren disuasio-izaeran, eta bidenabar bultzatuta bete behar fiskalak modu boluntarioan betetzea.

Parlamentu-talde honek aurreko legegintzaldian behin eta berriro adierazi du bere kezka eta ezinegona, eta etengabe aldarrikatu zuen helburuak, jarduketak eta emaitzak areagotu beharra zegoela.

Comptos Ganberak ere sarritan egin zuen antzeko gogoeta; izan ere, Diru-bilketaren Sistemaren gabeziak nabarmendu zituen kudeaketaren efizientzia eta eraginkortasuna balioestean. Halatan, 2009an betearazpen-bidean zegoen zorraren kudeaketak zor osoaren % 10,8 kobratzea lortu zuen soilik, eta ekitaldi horren amaieran betearazpen-bidetik 155,9 milioi euro gelditu ziren kobratzeko; hau da, zor osoaren % 71,6.

Parlamentu-talde honek Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordean mahai gainean jarri zuen datuaren arabera, ekitaldi horretan gutxienez ere 1.479 espediente preskribatu ziren, 455 zorduni zegozkienak eta zortzi milioi eurotik goiti egiten zutenak. Are gehiago; 2008arekin alderatuta, 2009an % 23 igo ziren Espainian iruzur fiskalaren aurkako borrokaren emaitzak, baina Nafarroan % 0,57 baizik ez zen lortu hobetzea.

Halere, legegintzaldi honetan, egungo koalizioa gobernua eratzeko akordioak, 2011ko ekainaren 21ekoak, zenbait helburu ezarri zituen "hazkunde ekonomikoa sustatzeko eta enplegua sortzeko". Helburu horien artean ondokoa jaso zen hitzez hitz: "Iruzur fiskalaren aurka borrokatzeko estrategia berri bat taxutzea. Helburua da borroka horren emaitzak kuantitatiboki eta kualitatiboki handitzea."

Arrazoiak dira, berriz, justizia eta ekitatea, bai eta diru-bilketa optimizatzea –bereziki egungo krisi ekonomikoko koiunturan– eta administrazio publikoek defizitaren helburuak betetze aldera gastua doitu beharra ere; hartara, komeni da plan indarduna aldatzea eta beste plan bat taxutzea, aurrekoa baino aurreratuagoa eta anbiziotsuagoa, giza baliabide eta baliabide materialez hobeki hor-

nitua, lortu beharreko helburuak ezarriko dituen eta, beharrezkoak diren estimazioez gain, boluntarismo hutsa gaindituko duena.

Mozioren testua

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hiru hilabeteko epean alda dezan Iruzur fiskalaren aurkako egungo plana eta Iruzur fiskalaren aurkako 2015era bitarteko plan berri bat taxu dezan, iruzur fiskalaren aurkako borroka areagotzeko eta haren emaitzak hobetzeko, ondoko irizpideekin bat:

- Estrategia anbiziotsu bat ezartzea, helburu zehatz, neurgarri eta ebalagarriekikoa.
- Diru-bilketaren arloko helburuak nabarmen handitzea.
- Epe labur, ertain eta luzeko estrategia bat garatzea, eskura dauden baliabide materialak eta giza baliabideak optimizatzeko.
- Aztertzea ea komeni den zuzendaritza bakar baten baitan sartzeko ikuskaritza, kudeaketa eta diru-bilketa zerbitzuak, eta horien koordinazioa,

beharrezkoa, Nafarroako Gobernuko gainontzeko departamentuekin, erakunde autonomoekin eta entitate publikoekin ezartzea.

- Ikuskaritza fiskaleko plan berri bat taxutzea.
- Hiru zerbitzuetako langile-kopurua handitzea, zerga-agentearen figura baliatuta, behar bezala atxikirik enpresa publikoetako zorren kudeatzaileak, nagusiki Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun Departamentuarentzat lan egiten dutenak.
- Comptos Ganberak diru-bilketaren kudeaketarako egindako gomendioak betetzea. Besteak beste, lortu beharreko emaitzen arabera zehaztea helburuak –ez egin beharreko jarduketan arabera–, lortutako emaitzen balioeste- eta kudeaketa-adierazleak jasotzea, kostuen sistema bat ezartzea.
- Herritarrak sentsibilizatzeko programa bat jasotzea, tributu-betebeharrak betetzerakoan arduraz jokatzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 4an.

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez dezan neurririk edo konpromiso publikorik har hondakinen errausketa-sistema ezartzeari dagokionez.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ez dezan neurririk edo konpromiso publikorik har hondakinen errausketa-sistema ezartzeari dagokionez.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, hondakinen errausketa-sistema ezartzeari dagokionez konpromiso publikorik ez hartzeari buruzko ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

PIGRIN dela-eta izandako eztabaida sozial, tekniko eta parlamentarioak markatu zuen aurreko legegintzaldiaren amaiera.

Lehenengo gobernuak Iruñerriko Mankomunitatearekin eta sektore tekniko eta ingurumenekoekin hartutako erabakiek eta azken ondorioek konpromisoak ekarri zituzten murrizketaren, berrerabilearen eta birziklapenaren aldeko apustua egite aldera, tratamenduan lehenetsi daitezten.

Orobat, epeak ezarri ziren, mankomunitateek tratamendu arloko planak eta helburuak presta zituzaten.

Bitarte honetan hauteskundeak egon direnez eta, ondorioz, ordezkariak aldatu direnez eta sei hilabete baino gehiago igaro direnez auzi horretan inolako mugimendurik egin gabe, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena egiten du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du ez dezan inolako konpromisorik har edo molda hondakinak errausteko sistema ezartzeari dagokionez, harik eta parte-hartze sozialeko prozesuan hitzartutako edukien aukera eta ahalmen guztiak garatzen ez diren arte.

Iruñean, 2011ko urriaren 4an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak gaitzesten du Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren jardun politikoa, 2011rako Nafarroako aurrekontu orokorrekin eginiko kudeaketagatik.

IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzesten baitu Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren jardun politikoa, 2011rako Nafarroako aurrekontu orokorrekin eginiko kudeaketarengatik.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

José Miguel Nuin Morenok, Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldearen eledunak, Legebiltzarreko Erregelamenduarekin bat, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin:

Iragan irailaren 28an, 2011rako Aurrekontu Orokorretan 190,6 milioi euroko murrizketa egitea onetsi zuen Nafarroako Gobernuak. Murrizketak 1.334 kontusail ukituko ditu, eta 2011ko azken hiru hilabeteetan gauzatu beharko da.

Nafarroako Gobernuak orobat iragarri du 61,76 milioi euroko beste murrizketa bat falta dela zehazteko.

Halatan, aurrekontuan 41,9 milioi euro bete gabe utzita, 2011ko azken hiru hilabeteetan egin beharreko murrizketa 294,3 milioi eurokoa izanen da osotara.

Murrizketak, oro har, aurrekontu osoa ukituko du, baina gastu eta inbertsio sozialari eraginen dio bereziki.

Toki entitateentzako transferentzia arrunten funtsa, adibidez, % 28 murriztu da azken hiruhilekoan; NUPentzako azken hiruhilekoko transferentzia, % 25,5; osasun publikoko kirofanoetan aurreikusitako inbertsioa, % 17,7; hezkuntzako 0tik 3 urtera bitarteko ziklorako azken hiruhilekoko ordainketa, % 25; Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen aurrekontua, % 9,4; I+G+Brako diru-laguntzak, % 16,8; eta errepideetako kontserbaziorako aurrekontua, azkenik, % 25,9. Alegia, aurrekontu-politikako alderdi oso garrantzitsuetan erabateko aldaketa gertatu da, Nafarroako Parlamentuak 2011rako onetsi zuen aurrekontuaren aldean.

Muturreko egoeran geldituko dira entitate publiko eta pribatu asko, gutxieneko denbora-tarte batean haien baliabideen murrizketa drastikoa kudeatu beharko baitute. Hots, alde aurretik inolako abisurik jaso gabe, egun batetik bestera eta hiru hilabeteko gutxieneko epean eta, hortaz, baliabideen murrizketa nola bideratu planifikatzeko ia aukerarik gabe. Ez dezagun ahantz Nafarroako Gobernuak ez zuela aurrekontu-murrizketa zorrotz hori martxoan edo ekainean iragarri eta erabaki,

baizik eta 2011ko irailaren 28an, aurrekontu-ekitaldia bukatzeko hiru hilabete eskas falta direla.

Nafarroako Gobernuaren aurrekontu-politikaren arloko aurreikuspen eta plangintza eza harrigarriak dira beraz.

Izan ere, ia-ia iraila arte, Nafarroako Gobernuak konfiantza eta lasaitasun mezuak igorri ditu 2011rako onetsitako aurrekontua betetzeari zego-kionez.

Hau da, Nafarroako Gobernuak ez zen ezertaz ere jabetzen, edo nafar gizarteari errealitatea ezkututzen ari zen.

2011ko ekainaren 1ean, Nafarroako Gobernuko bigarren lehendakariorde eta Ekonomiako kontseilariak ondokoa adierazi zuen, lehen hiruhilekoari buruzko aurrekontu-defizitaren datuak baloratzean:

"Nafarroa ondo dabil, lehen hiruhilekoan % 0,07koa izan baita defizit publikoa; hau da, aurtengo muga % 1,3koa denez, ia-ia zerokoa da. Tarteak badugu, ekitaldian zehar helburua arazorik gabe betetzeko."

Eta uztailaren 3an, berriz, gobernu berriak bere karguak zin egin ondoren, ondokoa adierazi zuen:

"Murrizketek hitz egin baino gehiago, geure burua ongi administratu behar dugu", "Gure ekonomia % 2 ari da hazten, eta langabeziaren igoera geratzen ari da."

Hortaz, irailean murrizketa drastikoak iragarri zituen unera arte, Nafarroako Gobernuak konfiantza eta lasaitasun mezuak ari zen igortzen gizarteari ekonomia arloko bere ordezkari nagusiaren ahotik, onetsitako aurrekontua betetzeari dagokionez.

Berriro diogu, ez zen ezertaz ere jabetzen, edo nafar gizarteari errealitatea ezkututzen ari zen.

Modu batera zein bestera izan –ezertaz jabetzen ez bazen edo errealitatea ezkututzen bazuen–, arazoa da Gobernuaren sinesgarritasun politikoa hutsaren hurrengo izatera iritsi dela bere kudeaketa ekonomikoari dagokionez.

Eta hortik erantzukizun politikoak heldu behar dira. Nafarroako Gobernuko Ekonomiako kontseilariak ezin du bere erantzukizunetan jarraitu.

Ekonomiako kontseilariak bere kudeaketari buruz emandako azalpenak zeharo ahul eta eskasak dira.

Ezin da ulertu, esate baterako, kontabilitate nazionalari dagokionez Europako Batasunak exijitzen dituen irizpideekin bat, itzaleko bidesariaren kontusailak 2011ko aurrekontuetan jaso ez izana. Comptos Ganberak egin zuen horri buruzko ohartarazpena, eta horrek ekarri du aurrekontu murrizketari, azkenean, 164 milioi euro gehitzea.

Halaber, Gobernuak ez du ia iraila heldu arte iragarri aurreikusitako diru-bilketa fiskala 160 milioi euro jaitsi dela (74 milioi, Sozietateen gaineko Zergan), eta 2011 osoa utzi du pasatzen inolako ekimenik hartu gabe gehien dutenei eta gehien irabazten dutenei presio fiskala igotzeko.

Eta orain, erantzuteko ia denborarik gabe, 2011 bukatzeko hiru hilabete baino geratzen ez direla, Nafarroako Gobernuak proposatzen duen gauza bakarra da kolpe ekonomiko latz bat ematea politika sozial eta publikoei, aurrekontu murrizketa orokortuak eta drastikoak eginez.

Kolpe ekonomiko horrek berekin ekarriko du zerbitzu publikoen kalitatea nabarmen jaitea, oinarritzko zerbitzuak, osasungintza eta hezkuntza publikoa kasu, narriatzea, eta milaka lanpostu galtzea.

Horregatik guztiagatik, Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak honako erabaki proposamena aurkezten du, Osoko Bilkurak onesteko:

1.- Nafarroako Parlamentuak politikoki gaitzes-ten du Ekonomia eta Ogasuneko kontseilari Álvaro Miranda Simavilla jauna, Nafarroako 2011ko Aurrekontu Orokorren kudeaketa dela-eta.

2.- Nafarroako Parlamentuak exijitzen du Álvaro Miranda Simavilla jauna Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasuneko kontseilari kargutik kentzea.

Iruñean, 2011ko urriaren 6an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berehala jar dezan abian koloneko minbiziaren detekzio goiztiarrerako programa.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularrak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari dagokionez. Mozio horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da berehala jar dezan abian koloneko minbi-

ziaren detekzio goiztiarrerako programa. Mozio hori 2011ko irailaren 23ko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2011ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna helarazten baitio Kongoko herriari.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2011ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1.- Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten dio Kongoko herriari, bortxaketak, hilketak eta gosea pairatzen baititu eta osasun eta hezkuntza duinak jasotzen ez baititu.

2.- Nafarroako Parlamentuak salatzen du Kongoko Errepublika Demokratikoa sasi-bake egoeran bizi dela, eta giza eskubideen bortxaketa masiboak –nazioarteko erakundearen pasibotasunarekin egiten diren izugarrikeria latzak– arbuizatu ditu.

3.- Nafarroako Parlamentuak bere kezka adierazten du, Nafarroako Kongoarren Elkarteak egindako salaketan arabera Espainiak Kongon duen

enbaxadan gertatzen diren ustezko ustelkeria kasuengatik, eta agintari eskudunei exijitzen die egoera iker dezaten eta Espainiako Estatuaren menpeko erakundearen kudeaketan gardentasuna ziurta dezaten.

4.- Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari eskatzen dio adierazpen hau helaraz diezaien, Kanpo Arazoetarako Ministerioaren bitartez, Kongoko Errepublika Demokratikoko erakunde eskudunei, eta zuzemenak egin ditzan MONUSCOK 2011ko azaroan egiten diren hauteskundearen gardentasuna ziurtatzeko.”

Iruñean, 2011ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, “Beste doitze-neurri batzuk” modura definituriko 61,76 milioi euroko murrizketek ukituko dituzten kontusailei buruzkoa.*JUAN CARLOS LONGÁS GARCÍA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Carlos Longás García jaunak aurkeztutako galdera, “Beste doitze-neurri batzuk” modura definituriko 61,76 milioi euroko murrizketek ukituko dituzten kontusailei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Ekonomia eta Ogasun Batzordean izapideztea.

Iruñean, 2011ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Juan Carlos Longás García, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernu-

ko Ekonomia eta Ogasuneko kontseilari Miranda jaunak Batzordean ahoz erantzun dezan:

Irailaren 28an 2011ko aurrekontu-doitzea aurkeztu zuenean, azkeneko doitzea 294,3 milioi eurokoa izanen zela aurreikusten zuen Gobernuak, zeinetatik:

- 190,60 milioi, Departamentuek gastua gutxitzeagatik.

- 41,90 milioi, gastu arrunta ez betetzeagatik (aurreikuspena).

- 61,76 milioi, 2011ko abenduaren 31ra bitarteko beste doitze-neurri batzuk direla-eta.

Azken horren munta eta lausotasuna ikusita, ondokoa jakin nahi dut:

Zehatz al dezakezu zer diren "beste doitze-neurri batzuk" eta horiek zer kontusail ukituko dituzten? Zer hurrenkera izanen dute denboran zehar doitze-neurri horiek?

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Foru parlamentaria: Juan Carlos Longás García

Galdera, zenbait kontusail zor gisa kontabilizatzeko erabili diren irizpideei buruzkoa.

JUAN CARLOS LONGÁS GARCÍA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Carlos Longás García jaunak aurkeztutako galdera, zenbait kontusail zor gisa kontabilizatzeko erabili diren irizpideei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Ekonomia eta Ogasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2011ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Juan Carlos Longás García, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernu-

ko Ekonomia eta Ogasuneko kontseilari Miranda jaunak Batzordean ahoz erantzun dezan:

Ekonomia eta Ogasun Departamentuak Parlamentu honi emandako informazioaren arabera, Nafarroako Ogasunak guztira 1.788 milioi euroko zorra zuen 2011ko bigarren hiruhilekoan. Espainiako Bankuaren iritziz, berriz, Gehiegizko Defizitaren Protokoloarekin bat, Foru Komunitateak 2011ko bigarren hiruhilekoa bukatzean zuen zorra 1.994 milioi eurokoa zen.

Jakina da desadostasunak daudela zenbait kontzeptu zor gisa hartzei buruz, baina, betiere, ematen du gardentasunak eta informazioak osoak izan behar dutela hain munta handiko auzi batean.

Hori dela-eta, ondokoa jakin nahi dut:

Zeri zor zaio 206 milioi euroko aldea? Zer irizpide baliatzen da, Gehiegizko Defizitaren Protokoloarekin bat, zenbait kontusail (batik bat, itzaleko bidesariak) zor gisa kontabilizatzeko orduan?

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Foru parlamentaria: Juan Carlos Longas García

Galdera, Gehiegizko Defizitaren Protokoloak ezarritako defizitaren azken kopurura iristeko beharrezkoak diren kontabilitate nazionalaren doikuntzen osagaiei buruzkoa.

JUAN CARLOS LONGÁS GARCÍA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Carlos Longás García jaunak aurkeztutako galdera, Gehiegizko Defizitaren Protokoloak ezarritako defizitaren azken kopurura iristeko beharrezkoak diren konta-

bilitate nazionalaren doikuntzen osagaiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Ekonomia eta Ogasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2011ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Juan Carlos Longás García, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernu-ko Ekonomia eta Ogasuneko kontseilari Miranda jaunak Batzordean ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernu-ko Ekonomia eta Ogasun Departamentuak 2011ko irailaren 7an adierazi zuen 2011ko aurrekontuan 327,2 milioi euroko doitzea egin beharra dagoela. Diru-kopuru horretatik, 175 milioi "kontabilitate nazionalako doitzek" izenekoei dagozkie, batik bat itzaleko bidesariaren sistemarekin eraikitako obrei eta obligazio fiskaltako geroratzei. Doitze horiek egin beharra dago, Gehiegizko Defizitaren Protokoloaren ondorioetarako defizit baliadunera iristeko:

294,3 milioi euroko doitzea onetsi zuen Gobernuaren Erabakia aurkeztu zenean, kontabilitate

nazionalaren doitze hori 11 milioi murriztu zen; alegia, 164 milioi eurokoa izatera igaro zen.

Zenbateko horien norainokoari erreparatuta, oso garrantzitsua da zehatz-mehatz jakitea zein den kontusail horren osaketa eta zer kalkulu-prozedura erabili diren.

Hori dela eta, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Zein dira Gehiegizko Defizitaren Protokoloarekin bat defizitaren azken zenbatekora iristeko egin beharreko kontabilitate nazionalako doitzearen osagaiak? Zer irizpide baliatu dira horiek kontabilitatzeko? Zehazki, zein da osagai horietako bakoitzaren zenbatekoa 2011n?

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Foru parlamentaria: Juan Carlos Longás García

Galdera, Biurdana ikastetxean ikasleen metaketa saihesteko hartuko diren neurriei buruzkoa.

AITZIBER SARASOLA JACA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitziber Sarasola Jaca andreak aurkeztutako galdera, Biurdana ikastetxean ikasleen metaketa saihesteko hartuko diren neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2011ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aitziber Sarasola Jacak, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentariak, Legebiltzarre-

ko Erregelamenduari jarraikiz, ondoko ahozko galdera egin nahi du, Osoko Bilkuran Hezkuntza kontseilari José Iribas Jaunak erantzun dezan.

Biurdana ikastetxea ikaslez betea dago eta gero eta leku gutxiago dago ikasle berriak sartzeko, egoitzak jada ez du ematen ikasle gehiago sartzeko. Gainera, egun ez dago gela gehiago hurrengo ikasturtean bertaratzekoak direnentzat (esaterako Patxi Larraintzar eta Sanduzelaiko ikastetxea). Hau guztia kontuan izanda:

Zein asmo dauka Hezkuntza Sailak Biurdanako ikasle pilaketa saihesteko eta zein neurri hartzeko asmoa dauka?

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Foru parlamentaria: Aitziber Sarasola Jaca

Galdera, Nafarroako Kulturaren Plan Estrategikoa garatzeko abian jarritako jarduketei buruzkoa.

ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Kulturaren Plan Estrategikoa garatzeko abian jarritako jarduketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2011ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko Román Felones Morrás foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 191. artikuluan xedatuaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Kulturaren Plan

Estrategikoari buruzkoa, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dadin.

PSN-PSOEren 2007-2011 legegintzaldiko jarduketa-ildo nagusietako bat izan zen Nafarroako Kulturaren Plan Estrategiko bat taxutu behar zela, administrazioei eta sektoreari lagunduko ziena jakiten zein izanen zen, epe ertainera eta luzera, jarduketa-horizontea. Gobernuaren erreparatuak gorabehera, 2011rako Kulturako aurrekontuak "Nafarroako Kulturaren Plan Estrategikoa" izeneko 125.000 euroko kontusail bat jaso zuen, PSN-PSOEren zuzenketa bat zela medio.

Ondoren, UPNk eta PSNk Nafarroako Foru Komunitateko Gobernu osatze aldera lortutako akordioak ondokoa jaso zuen berariaz kulturaren arloan: "Nafarroako Kulturaren Plan Estrategikoa egin dadin bultzatzea".

Horrenbestez, hauxe jakin nahi dugu:

Zer jarduketa bultzatu ditu Nafarroako Gobernuak konpromiso hori garatzeko?

Iruñean, 2011ko urriaren 4an

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

Galdera, jakiteko zenbat denbora beharko duten Alderdi Sozialistako kideek Nafarroako Gobernuan haien jarduna profesionaltasunez eta ebazte-gaitasunez garatzeko.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zenbat denbora beharko duten Alderdi Sozialistako kideek

Nafarroako Gobernuan haien jarduna profesionaltasunez eta ebazte-gaitasunez garatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2011ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko lehendakari Yolanda Barcina Angulo andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Barcina andreak ondokoa adierazi zuen Foru Komunitateko hedabide batean: "Alderdi Sozialistak hainbeste denbora darama oposizioan, non oraindik ere Gobernuan egotea zer den ikasten ari den. Ea azkar ikasten duen."

Horri buruz, parlamentari honek hau jakin nahi du:

- Nafarroako Gobernuko lehendakari Barcina andreak zenbat denbora uste du beharko dutela Gobernuan ardurak dituzten PSNko kideek haien jarduna profesionaltasunez eta ebazte-gaitasunez garatzeko?

Iruñean, 2011ko urriaren 6an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, aurrekontuen murrizketak izaten ari diren eraginaren gaineko aurreikuspen kuantitatibo kalkulatuari buruzkoa.

BIKENDI BAREA AIESTARAN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bikendi Barea Aiestaran jaunak aurkeztutako galdera, aurrekontuen murrizketak izaten ari diren eraginaren gaineko aurreikuspen kuantitatibo kalkulatuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2011ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestarane, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2011rako % 1,3ko defizit-helburua betetze aldera 190,6 milioi euroko lehendabiziko aurrekontu-doitze bat egiteko Gobernuaren akordioaren ondotik, Bildu Nafarroa parlamentu-taldeak ondokoa jakin nahi du:

1.- Nafarroako Gobernuak zer aurreikuspen kuantitatibo egiten du, aurrekontu murrizketak sektore publikoko eta pribatuko lanpostuen galeran izaten ari diren eraginari buruz?

Iruñean, 2011ko urriaren 6an

Foru parlamentaria: Bikendi Barea Aiestaran

Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Minbiziaren Ospitale Erregistroaren garapen-mailari buruzkoa.

MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Minbiziaren Ospitale Erregistroaren garapen-mailari buruzkoa.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Marisa De Simón Caballero, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egiten ditu, Osasun Departamentuak idatziz erantzun ditzan:

Osasuneko kontseilariaren urriaren 11ko 96/2006 Foru Aginduaren bidez sortu zen "Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Minbiziari buruzko ospitale-erregistroa" izeneko fitxategi informatizatua.

Foru aginduan esaten denez, "haren xedea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuen menpe edo hari atxikirik dauden osasun etxeetan atzeman edo tratatzen diren prozesu neoplasikoak erregistratzea da, laguntza prozesuak aztertu eta haiek osasunean dituzten emaitzak ebaluatzeko." Orobat, "datuen azterketak ahalbidetu eta erraztuko du arlo horiei aplikaturiko ikerketa klinikoa."

Zein da erregistro horren garapen-maila?

Zein da Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Minbiziari buruzko ospitale-erregistroko datuetatik abiatuta prestatu diren txosten estatistikoaren edo bestelako txostenen edukia?

Txosten horiek zer eragin izan dute gure Foru Komunitatean prozesu onkologikoei emandako zerbitzua ebaluatzeari eta hobetzeari dagokienez?

Iruñean, 2011ko irailaren 30ean

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

Galdera, Administrazio Publikoko teknikari lanpostuetarako oposizioan plika-sistema aldatzeari buruzkoa.

JOSÉ MIGUEL NUIN MORENO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Miguel Nuin Moreno jaunak aurkeztutako galdera, Administrazio Publikoko teknikari lanpostuetarako oposizioan plika-sistema aldatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari José Miguel Nuin Morenok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak ekainaren 16an emandako 91/2008 Ebazpenaren bidez onetsi zen administrazio publikoko teknikari (arlo juridikoa) izateko lanpostuak oposizio bidez betetzeko deialdia.

Deialdiko 6.5 oinarrian ezartzen denez, bigarren eta hirugarren ariketak plika sistemaren bidez eginen dira.

Nafarroako Parlamentuak bi mozio onetsi zituen 2010ean (maiatzaren 13an eta ekainaren 25ean), zeinen bidez Nafarroako Gobernuak premiatu baitu funtzio publikoan sartzeko oposizioetako deialdietan pliken sistema erabil dezan, oposizioan parte hartzen dutenen anonimotasuna ziurtatzeko.

Halere, 2010eko martxoaren 23an, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak 59/2010 ebazpena eman zuen, zeinaren bidez aldatu baitzuen 91/2008 Ebazpenaren bidez deitutako oposizioetako pliken sistema, halako moduan non ariketak ekitaldi publikoan irakurri beharko baitziren epaimahaiaren aurrean.

Ebazpen horretan ez da justifikatzen zer dela eta egin den epaimahaiaren aurrean oposizioetako

en anonimotasuna bertan behera uzten duen aldaketa hori.

Horrenbestez, hauxe jakin nahi dugu:

- Zer arrazoi egon zen pliken sistemaren ordeztasun epaimahaiaren aurreko irakurketa publikoa jartzeko?

- Nor izan da edo nortzuk izan dira pliken sistemaren ordeztasun epaimahaiaren aurreko irakurketa publikoa jartzearan arduradun politiko edo teknikoak?

- Parlamentuan onetsitako bi mozioetan –bat gehiago handiz onetsi zen, eta bestea aho batez– Nafarroako Gobernuak premiatzen zen funtzio publikoan sartzeko oposizioetako deialdietan pliken sistema erabil dezan. Zer arrazoi egon dira bi mozio horiek ez betetzeko?

- Posible izanzen zen iazko apirilean argitaratutako deialdia aldatzea, berriz ere pliken sistema ezartzeko eta 2010eko azken hiruhilekoan egindako azterketetan izangaien anonimotasuna bermatzeko?

- Beste zer oposizio-deialdietan aldatu da, aldatu baldin bada, pliken sistema, horren ordeztasun epaimahaiaren aurreko irakurketa publikoa jartzeko?

- Etorkizunari begira, Nafarroako Gobernuak pliken sistema, eta ez besterik, erabiliko al du, epaimahaiaren aurrean oposizioetako anonimotasuna ziurtatzeko?

Iruñean, 2011ko urriaren 4an

Foru parlamentaria: José Miguel Nuin Moreno

Galdera, Nafarroako Kutzak gizarte-ekintzara bideratutako diru kopurua murrizteari buruzkoa.

SANTIAGO CERVERA SOTO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Santiago Cervera Soto jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Kutzak gizarte-ekintzara bideratutako diru kopurua murrizteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Santiago Cervera Soto jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ohorea du ondoko galderak aurkezteko, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion.

Orain dela gutxi jakin denez, murriztu egingen dira Nafarroako Kutxak gizarte-ekintzara bideratutako funtsak, sozietateak Banca Cívica taldearen barruan duen egoera berriaren ondorioz. Aurreikustekoa zenez, FROB-Banku Sektorea Era Ordinatuan Berregituratzeko Funtsaren kapitala Banca Cívican sartzeak berekin dakar Espainiako Bankuak murrizketa zorrotzak ezartzea etekinak gizarte-ekintzara bideratzeari, lehentasuna ematen baitzaio entitateek eskatutako kapital publikoaren itzulketari.

Bestalde, Banca Cívicaren burtsa-balioak, zeina duela hilabete gutxi Nafarroako gizarte-erri adierazitakotik oso urrun baitago, eta dibidenduen etekin txikiagoek –horiek ere zenbaitek iragarritako aurreikuspenetik murriztuak– berekin ekarriko dute nabarmen urritzea Kutxaren eskuetan utzi izan diren gizarte-ekintzako programak.

Nafarroako Kutxaren gizarte-ekintzaren murrizketa handiaren zenbatekoak zehaztu direnez gero,

eta agerikoa denez diru-sarreraren murrizketa horrek Nafarroako herritar-elkarte askoren eguneroko jarduna baldintzatuko duela, jakin nahi dugu ea Nafarroako Gobernuak zer aurreikuspen egiten duen auzi horri buruz eta zer eragin izan dezakeen hirugarren sektore horrek orain arte ematen zituen zerbitzuetan eta ekintzetan, Nafarroako Kutxaren "Zuk aukeratu, zuk erabaki" programaren bidez lagundutako gizarte-ekintzari atxikietan.

Hortaz, ondokoa galdetzen diogu Nafarroako Gobernuari eta, zehazki, Ogasun, Hezkuntza, Osasun, Gizarte Politika eta Kultura departamentuei:

– Nola baloratzen duzue Nafarroako Kutxak gizarte-ekintzara bideratutako funtsen murrizketa handia?

– Zer eragin izanen du murrizketak elkarte horiek bere gain hartutako ekintzen garapenean eta elkarte-jardueretan?

– Gobernuak aurreikusten al du neurri aringarririk edo konpentsaziokorik, Nafarroako Kutxaren gizarte-ekintzaren kargurako edo "Zuk aukeratu, zuk erabaki" programari atxikiriko finantzaketa murriztu zaien elkarteetan jarduerari dagokienez?

Iruñean, 2011ko urriaren 4an

Foru parlamentaria: Santiago Cervera Soto

Galdera, Josefina Arregui klinikak ematen duen prestazioa Altsasuko udal-erriak katalogoaz gain eman nahi duen zerbitzua dela dioen iritziri buruzkoa.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, Josefina Arregui klinikak ematen duen prestazioa Altsasuko udal-erriak katalogoaz gain eman nahi duen zerbitzua dela dioen iritziri buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialdek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernu-ko Osasuneko kontseilariari, idatziz erantzun diezaion:

Altsasuko Josefina Arregui zentroari buruz hitz egite aldera kontseilariarekin orain dela gutxi izandako bileraren ondotik, eta "aurrekontuko doitzeneurriak" iragartzeko prentsaurrekoan adierazitakoa zuzenean irakurtzean hartutako ezustekoa dela-eta, ondokoa jakin nahi dut:

1.- Kontseilariak eta bere departamentuak benetan uste al dute katalogoan ezarritakoaz harantzago doan zerbitzua eman nahi duela Altsasuko herriak Josefina Arregui klinikaren bidez?

2.- Zertan oinarritzen zara jendaurrean adierazteko katalogoan ezarritakoaz harantzago doan zerbitzua eman nahi duela Altsasuko herriak Josefina Arregui klinikaren bidez?

Iruñean, 2011ko urriaren 4an.

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

Galdera, Osasunbideak barne-erabilerarako botika aukeratzeko jarraitu duen irizpideari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, Osasunbideak barne-erabilerarako botika aukeratzeko jarraitu duen irizpideari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bakartxo Ruiz Jasok, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko kideak, Legebiltzarreko Erregelamendua ezarritakoari jarraiki, Nafarroako Gobernuari honako galdera helarazten dio, idatziz erantzun dezan:

Sendagileek printzipio aktiboa errezetatuko dute hemendik aurrera eta botikarien eskuetan geratuko da medikamentu zehatza erabakitzea.

• Osasunbideak berak, barneko erabilerarako, zein irizpideri jarraituko dio?

Iruñean, 2011ko urriaren 5ean

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, Atzerritarren Legearen garapenak eskatzen dituen integrazio-txostenak prestatzeko erabilitako irizpideei buruzkoa.

NEKANE PÉREZ IRAZABAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nekane Pérez Irazabal andreak aurkeztutako galdera, Atzerritarren Legearen garapenak eskatzen dituen integrazio-txostenak prestatzeko erabilitako irizpideei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Nekane Pérez Irazabalek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Kultura, Turismo eta Erakundeekiko Harremanetarako Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Gobernuak zer irizpide baliatuko ditu Atzerritarren Legearen garapenez autonomia erkidegoaren integrazio-txostenak egiteko?

Iruñean, 2011ko urriaren 4an

Foru parlamentaria: Nekane Pérez Irazabal

Galdera, gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen den tributuen % 0,7a dela-eta izandako diru-bilketari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen den tributuen % 0,7a dela-eta izandako diru-bilketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen 100eko 0,7 arautzen duen ekainaren 5eko 7/2009 Foru Legea onestearekin (2009ko ekainaren 15eko 73. NAO), urtero ezartzen da diru-bilketa gizarte-xedeetan nola banatu. Ez daki-guna da nolakoa den diru-bilketa. Hori horrela, honakoak jakin nahi genituzke:

1.- Nafar zergadunek Gizarte-xedeen laukitxoa eta Eliza Katolikoaren mantentzearena aldi berean

markatzen dituztenean, Estatuan horrek berekin dakar PFEZeko % 0,7 + % 0,7, eta hemen, aldiz, % 0,35 + % 0,35. Zergatik?

2.- 2010eko Errenta Aitorpenaren kanpainan, zeina 2011n egin baita, zenbat zergadunek markatu zuten gizarte-xedeen laukitxoa? Zenbat zergadunek markatu zuten Eliza Katolikoaren Mantentzearen laukitxoa? Zenbat zergadunek markatu zituzten aldi berean bi laukitxoak? Zenbat zerga-

dunek ez zuten laukitxorik markatu? Adierazi horien kuota osoa ere.

3.- Errentaren Aitorpenaren azken kanpainan zenbat diru bildu da gizarte-xedeen laukitxoaren bidez?

Iruñean, 2011ko urriaren 6an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordea.

Ordezpena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Bildu-Nafarroa parlamentu-taldearen idazkia, Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordean aipatu taldeak dituen kideetako bat aldatzeari buruzkoa, hona ERABAKIA:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Aitziber Sarasola Jaca andreak Koldo Amezketa Díaz jauna Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordean ordeztari dagokionez.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2011ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

1/2011 Foru Lege-dekretua, urriaren 6koa, defizit helburua betetzeko hainbat neurri onesten dituen.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urriaren 10ean egindako bilkuran, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 21.bis artikulua aitortzen dion ahalmena erabiliz, Nafarroako Gobernuak onetsi du 1/2011 Foru Lege-dekretua, urriaren 6koa, defizit helburua betetzeko hainbat neurri onesten dituen, eta Nafarroako Parla-mentura igorri du, hor baliozko dezan. Foru Lege-dekretua 2011ko urriaren 7ko 200. Nafarroako Aldizka-ri Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 161. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Xedatzea defizit helburua betetzeko hainbat neurri onesten dituen urriaren 6ko 1/2011 Foru Lege-dekretua baliozkotu edo indargabetzeko eztabaida eta bozketa 2011ko urriaren 20ko Osoko Bilkuran eginen dela.

2. Erabaki hau eta aipatu foru lege-dekretua Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argi-tara daitezen agintzea.

Iruñean, 2011ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

1/2011 Foru Lege-dekretua, urriaren 6koa, defizit helburua betetzeko hainbat neurri onesten dituen

Foru Komunitateko Administrazioak eta Estatu-ko Administrazioak, 2010eko abenduaren 9an, 2011-2013 aldirako defizit helburua hitzartu zuten. Eskualdeko BPGd-aren %1,3 ezarri zen 2011ko eta 2012ko ekitaldietarako, eta %1,1 2013ko ekital-dirako.

Testuinguru horretan, Nafarroako Gobernuak, 2011ko apirilaren 18an hartutako Erabakiaren

bidez, konpromisoa hartu zuen aurtengo aurrekon-tu egonkortasunaren helburua betetzeko, sarrera eta gastu publikoen bilakaerari jarraipena eginez, eta, hala behar denean, behar diren neurri zuzen-tzaileak hartuz.

Sarreraren bilakaera azterturik, baita kontabilitate nazionalean Estatuaren Kontu-hartzailatza Nagu-siak aplikatu dituen doitze batzuk ere, egiaztatu da ez direla bateragarriak batetik 2011rako Nafarroa-ko Aurrekontu Orokorretan aurreikusitako gastu maila eta bestetik aurrekontu egonkortasunaren helburua betetzea. Horregatik, Nafarroako Gobernuak, 2011ko irailaren 7an hartutako Erabakiaren bidez, beste gastu muga bat ezarri zuen aurrekon-tu-ekitaldi honetarako: 3.809,43 milioi euro.

Erabakiak ezartzen du departamentu bakoitzak erabaki behar duela zein diren exekutatu gabe gel-ditu behar duten aurrekontuetako kontu-sailen sal-doak, eta, hala behar denean, sustatuko dituztela aurrekontu egonkortasunaren helburua lortzeko behar diren araudi-aldaketak.

Era berean, Nafarroako Gobernuak 2011ko irai-laren 7 horretantxe hartutako Erabakiaren bidez, gastu ez finantzarioaren gastuaren muga ezarri zen, 2012rako Nafarroako Aurrekontu Orokorri buruzko Foru Lege Proiektua egiteko. 2012rako defizit helburua betetzeko erabakiaren esparrua-ren barnean dago gastu muga hori.

Hori gauzatzeko, Nafarroako Gobernuak, 2011ko irailaren 28an hartutako Erabakiaren bidez, ezarri zuen 294,27 milioi eurokoa izanen zela aurrekontu doitzea. Testuinguru horretan, aurre-kontu egonkortasunaren helburua beteko dela ber-matzeko lehen erabakian azaldutako arrazoiek bere horretan dira, eta egokitu eginen dira, zen-bateko orokorretik departamentu bakoitzerako era-torritako zenbateko berrietara.

2011rako aurrekontu doitzearen esparru hone-tan, Osasun Departamentuak bere gastu arrunta-ren maila murrizteari ekin dio; horren eraginez, izan daiteke paziente batzuk zentro pribatuetara

bidaltzea, tratatuak izateko. Horretaz gainera aurrekontuko I. kapituluko langileria-gastuan dagoen muga kontuan harturik, horrek denak eragin dezake osasun arreta espezializatuan erantzuna emateko epeak luzatzea. Hori dela-eta, beharrezkoa da eraginik gabe uztea, 2011ko ekitalditik gelditzen denerako, 14/2008 Foru Legea, uztailaren 2koa, osasun laguntza espezializatuko itxaronaldien bermeei buruzkoa.

Halaber, Nafarroako Foru Komunitate osorako osasun eremu bakar bat eratu behar da, halako moduz non bidea emanen baita osasuneko baliabide publikoak mugarik gabe integratzeko eta optimizatzeko, eta, bereziki, ospitale publiko guztien koordinazio osoa, helburua izanik, beste alderdi garrantzitsu batzuen artean, itxaron zerrendak ez handitzeko borrokatzea.

Nafarroako Osasun Zerbitzuko arrisku bereziko osagarria batera arautzea da proposatutako beste neurrietako bat, ahalbidetuko duena gastua murriztea eta sortutako zenbatekoaz ziur egotea, irizpide bakarrak onetsiz, oraingo egoera desagerarazteko, izan ere orain argitasun eta segurtasun juridiko gabezia baitago, eta zenbatekoari buruzko zehaztasunik eza. Indarreko arauak oraingo egoera baldintzatzen dute: etengabe ari dira sortzen gatazka judizialak eta epai kontraesankorrak, eta, hitz batez, erabateko segurtasun falta aurrekontuaren aurreikuspenean, osagarri horien ordainketak ekarria. Hori dela-eta, beharrezkoa da arautze berri bat onestea.

Zerga finkapena eta aurrekontu egonkortasuna lortzeko esku-hartzea behar duen beste eremu bat langileen arloko politika da. Arrazoi ekonomikoek eta antolamendu arlokoek justifikatzen dute Nafarroako Gobernuari agintzea indarreko lan publikoaren eskaintzak berrikustea eta egoki iruditzen zaizkion lanpostuak kentzea, inguruabar horiei erantzuteko, betiere ez bada deialdirik egin edo, deialdia eginda ere, onartutakoaren eta baztertutakoaren behin betiko zerrenda onetsi ez bada. Kasu horietan, dagokion deialdia eta plantilla organikoak aldatu beharko dira.

Bestalde, hirigintza eta etxebizitza arloan, urgentziazko neurriak hartzeko ekainaren 5eko 6/2009 Foru Legearen espektatibak aise bete direnez, beharrezkoa da neurri horietako batzuen indarraldiaren bukaera aurreratzea, ezarritako epea -kasu askotan 2011ko abenduaren 31n bukatzen ziren- agortu aurretik, dauden diru baliabideetara egokitzeko estimulu-neurriak. Aurrekoarekin bat, Hirigintza eta Etxebizitzaren Arloan Urgentziazko Neurriak Hartzeko ekainaren 5eko 6/2009 Foru Legean jasotako neurrietako batzuen bukaera aurreratua ezarri da, haren 9. artikuluan aurrei-

kusitako aukeraren erabilera mugatu da, eta diru-laguntza batzuen aurrerakina eskatzeko aukera kendu.

Toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsaren ordainketarekin loturik, ezartzen da 2011ko urteko saritik ordaindu gabe dagoen guztiaren %70 ordainduko dela urriko lehen hamabostaldian.

Ildo horretan, beharrezkoa da Gizarte Zerbitzu Orokorren Zorroan jasotako prestazioak arrazionalizatzea. Gaur egungo egoera ekonomikoa ikusita, ezinezkoa da prestazioak gutxienez kontsumoko prezioen urteko indizearen arabera eguneratuko direla ezartzen duen arauari eustea. Hortaz, automatismo hori ezartzen duen agindua bertan behara utzi behar da, baina prestazio horiek eguneratzeko atea irekita utzita, unean-unean dauden aurrekontu-baliabideen arabera.

Ezinezkoa da, orobat, zorro horretan, mende-kotasunari arreta emateko arloan, dauden prestazioen bateragarritasun araubideari eustea, izan ere, beste autonomia erkidego batzuetan ez bezala, prestazio ezberdinak batera hartzeko aukera ematen baita hemen. Hortaz, bidezkoa da gizarte zerbitzuen zorro horretarako ezarritako araua aldatzea, eta onartutako prestazioen bateraezintasuna deklaratzeko. Dena den, arlo horretan eskumena duen kontseilariari ahalmena ematen zaio arauan salbuespenak egiteko, egoki denean, horrelako prestazioen bateragarritasuna ezarri ahal izateko.

Bestalde, defizitari eusteko behin eta berriz aipatzen ari garen helburua lortzeko, beharrezkoa da garapenerako lankidetzaren funtsa finantzatzeko kontu-sailetako gerakinak exekutatzeari uko egitea. Garapenaren aldeko Lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legeak, 16.2 artikuluan, ezartzen du ezen, edozer arrazoi dela-eta, Nafarroako aurrekontu orokorretan ezarritako lankidetzaren funtsaren gerakin bat baldin badago esleitu gabe, beste diru-laguntza deialdi bat onetsiko dela presaz, foru lege hartan xedatutakoaren arabera.

Beraz, beharrezkoa da artikulua horretan ezarritako betebeharra aldi baterako etetea, konprometiturik ez dauden kredituak erabili ahal izateko, izan ere, haren bidez Administrazioa behartuta dago garapenerako lankidetzara bideratutako funts guzti-guztiak exekutatzera.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 21.bis artikulua haxe ezartzen du 1. zenbakian:

“1. Kasu berezi eta oso presakoetan, Nafarroako Gobernuak behin-behineko legezko xedapenak eman ahal izanen ditu, foru lege-dekretu forma hartuko dutenak. Ezin izanen dira foru lege-dekretuaren xede izan honakoak: Foru Komunitateko erakundeen eta nafarren eskubideen, betebeharren eta askatasunen garapen zuzena, lege organiko honetan arautuak daudenena; lege organiko honen erreforma, eta lege hau garatzeko emandako foru legeena, legean bertan espresuki aipatzen direnena, hain zuzen; hauteskunde-araubidea; eta Nafarroako Aurrekontu Orokorrak.”

Orain arte aipatutako egoera dela eta, justifikatuta dago foru lege-dekretu bat onestea, kasu berezi eta oso presako bat gertatu delako, lege organikoaren artikulua hartan eskatzen den bezala.

Horregatik guztiagatik, abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 21.bis artikuluan jasotako baimena erabiliz, eta Lehendakartzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko kontseilariak, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak, Osasuneko kontseilariak, Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteriako kontseilariak eta Sustapen eta Etxebizitzako kontseilariak proposaturik, eta Nafarroako Gobernuak 2011ko urriaren 6an egindako bilkuran hartutako erabakiarekin bat etorri,

DEKRETATU DUT:

1. artikulua. Itxaron zerrenda.

1. 2011ko abenduaren 31ra arte, indarrik gabe uzten da Osasun Laguntza Espezializatuko Itxaronaldien Bermeei buruzko uztailaren 2ko 14/2008 Foru Legearen II. tituluan xedatutakoa eta Osasun Laguntza Espezializatuko Itxaronaldien Bermeei buruzko uztailaren 2ko 14/2008 Foru Legea garatzeko Erregelamendua onetsi zuen apirilaren 26ko 21/2010 Foru Dekretuaren II. kapituluaren xedatutakoa, salbu eta kirurgia hauei dagokienean:

a) Bihotzeko kirurgia: gehienez 60 eguneko epean arreta ematea bermatzen da, fakultatiboak adierazten duen egunetik hasita.

b) Kirurgia onkologikoa: gehienez 30 eguneko epean arreta ematea bermatzen da, fakultatiboak adierazten duen egunetik hasita.

2. Zerbitzua hobeki emateko, Nafarroa osoa lurralde bakartzat hartuko da, osasun zerbitzueta-ko prestazioen eta giza baliabideen berrantolamenduaren ondorioetarako.

2. artikulua. Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbideari atxikitako langileen berariazko erregimenari buruzko urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen aldaketak.

Bat. 9.bis artikulua indargabetzen da.

Bi. Xedapen gehigarri bat, zazpigarrena, erantsen zaio. Hona testua:

“Zazpigarren xedapen gehigarria.

1. 2011ko azaroaren 1etik aurrera, toxikotasun, nekagarritasun edo arrisku bereziko egoerak ekar ditzaketan lanpostuetan ari diren Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko osasun arloko langileek arrisku bereziko osagarri bat jasotzen ahalko dute, xedapen gehigarri honetan ezarritakoaren arabera.

2. Osasun arloko langileei dagozkien eginkizuetan ager daitezkeen mota guztietako arriskuak aintzat harturik (besteak beste, eragile fisiko, kimiko eta biologikoen eragindakoak), Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko laguntza zentroetako lan arloak honela sailkatzen dira:

A) Operazio gelak.

B) Ospitaleetako Larrialdiak, Zainketa Intentsiboak, Genetikako Laborategia, Anatomia Patologikoa eta Medikuntza Nuklearra.

C) Onko-hematologia (honen barruan eguneko ospitalea eta ospitalizazio onkologikoen unitateak daude), farmazia eta hemodialisia.

D) Errehabilitazioa, Fisioterapia, Endoskopiak, Erradiologia eta Erradioterapia.

E) Ospitalizazioko gainerako unitateak, ospitalez kanpoko larrialdiak eta gainerako laborategiak.

F) Oinarrizko osasun laguntzako taldeak, emakumeari laguntzeko zentroak, ospitalez kanpoko kontsultak, osasun mentaleko zentroak, aho-hortzetako osasunaren unitateak eta etxeko ospitalizazioa.

3. Osasun arloko langileek arrisku bereziko osagarri gisa jasotzen ahalko dute, aurreko atalean ezarri diren arloetako batzuen barneko unitate organikoek atxikitako lanpostuetan osasun eginkizunak bete bitartean, bakoitzaren mailaren hasierako soldadari honako portzentaje hauek aplikatuta ateratzen den zenbatekoa:

– A), B), C) eta D) letran sartutako arloak: %2.

– E) eta F) letretan sartutako arloak: %1.

4. Aipatu arloetako batean baino gehiagotan sartutako unitate organiko desberdinetan aritu ohi diren osasun arloko langileek E) letrako arloetarako ezarri den arrisku bereziko osagarria jasoko dute. Osasun arlokoak ez diren langileek ez dute osagarririk jasoko.

5. Osasun arloko langileak xedapen honetako aurreko atalean ezarri den arrisku bereziko osagarria baino handiagoa jasotzen ari badira, konpentsaziozko osagarri bat esleituko zaie diferentziarengatik. Konpentsazio hori xurgatu egingen da beren ordainsarrietan izaten den edozein gehikuntzarekin, eta horien artean sartuko dira, espresuki, bai ordainsari pertsonalei eta osagarriari dagozkienak bai oro har aplikatu daitezkeen ordainsari eguneratzei dagozkienak.

6. Xedapen gehigarri honen bidez osasun arloko lanpostuei esleitutako arrisku bereziko osagarria jasotzeari utziko zaio langile horiek asistentziak ez diren eginkizunak betetzera edo aurreko ataletan ezarritako lan arloei atxikita ez dauden lanpostuetara pasatzen direnean.

7. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan osasun arlokoak ez diren langileek, arrisku bereziko osagarria jasotzen ari baziren, horren ordean konpentsaziozko osagarria, zenbateko berekoa, jasoko dute, xedapen honen 5. atalean ezarritako baldintzetan.”

3. artikulua. Lan publikoaren eskaintza eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen funtzio publikoan sartzeko deialdiak.

1. Nafarroako Gobernuak berrikusi egin behar du Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan indarra duten lan publikoaren eskaintzak, eta zilegi izanen du oraindik deialdi baten bidez atera ez diren lanpostuak edo deialdia atera arren izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsia ez dutenak kentzea, arrazoi ekonomikoengatik eta antolaketa arrazoiengatik bidezkoa iruditzen zaionean, zerga finkapenari eta aurrekontu egonkortasunari begira.

2. Foru Lege-Dekretu honek indarra hartzean hasita dagoen hautapen prozedurako lanpostuak kentzen badira, deialdia egin duen organoak aldatu egin behar du deialdia, hasierako lanpostu kopurua aurreko atalean aurreikusitako kentzearen ondoriozko lanpostu kopuruaz ordeztuko.

3. Plantilla organikoetan ere beharrezkoak diren egokitzapenak egin behar dira.

4. artikulua. Ekainaren 5eko 6/2009 Foru Legea hein batean indargabetzea.

Indarrak gabe utzi dira Hirigintza eta Etxebizitzaren arloan Urgentziako Neurriak hartzeko ekainaren 5eko 6/2009 Foru Legearen II. tituluko I. kapitulua, hirugarren xedapen gehigarria eta bigarren xedapen iragankorreko 1. atala.

5. artikulua. Ekainaren 5eko 6/2009 Foru Legearen 9. artikulua aldatzea.

Hirigintza eta Etxebizitzaren arloan Urgentziako Neurriak hartzeko ekainaren 5eko 6/2009 Foru Legearen 9. artikulua idazketa berria izanen du eta, beraz, eduki hau:

“9. artikulua. Etxebizitza libreei babestuen kalifikazioa ematea eta babestutako etxebizitza mota aldatzea.

1. Foru lege honek indarra hartu aurretik Jabetzaren Erregistroan behar bezala inskribatutako birzatiketa proiektuetan aurreikusita dauden edo amaituta dauden etxebizitzaren sustapen osatuei etxebizitza babestuen kalifikazioa eman ahalko zaie edo kalifikatuta dauden araubidea aldatu, lurzoruaren eta urbanizazioaren kostuak salmentarako gehieneko prezioan duen eragina Nafarroako Etxebizitzaren Babes Publikoari buruzko ekainaren 24ko 8/2004 Foru Legean aurreikusitako portzentajetik gorakoa izan arren, betiere arrazoitzen bada beharrezkoa dela etxebizitza horiek babestuen kalifikazioa izatea edo kalifikazioa aldatzea, exekuzioa zuzenekoa dela ziurtatzen bada eta betetzen badira alderdi hauetaz etxebizitza babestuen araudi berariazkoan ezartzen diren baldintzak: azalera, diseinua, bizigarritasuna, xedea, erabilera, kalitatea eta gehieneko prezioa.

2. Alokairuko araubidean ezarri gogo diren sustapenak aurreko idatz-zatitik salbuesten dira”

6. artikulua. Transferentzia Arrunten Funtsa zatika ordaintzea.

Toki ogasunek Nafarroako tributuetan duten partaidetza funtsaren laugarren ordainketa, 2011ko ekitaldiari dagokiona, azaroaren 20ko 19/2008 Foru Legean, Transferentzia arrunten funts orokorra, Iruñearen hiriburutzaren agiria eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarentzako laguntzak izeneko kontzeptuetan arautua, bi zatitan ordainduko da, eta ekitaldi honetan gauzatuko da.

2011ko urriaren lehen hamabostaldian, 2011ko urtekotik ordaindu gabe dagoen guztiaren %70 ordainduko da.

7. artikulua. Gizarte Zerbitzuen Zorroko prestazioak.

1. Indarrak gabe uzten da Esparru Orokorreko Gizarte Zerbitzuen Zorroa onetsi zuen ekainaren 17ko 69/2008 Foru Dekretuaren lehen xedapen gehigarria, baita hura garatzeko eman diren maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak ere.

2. Ekainaren 17ko 69/2008 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Esparru Orokorreko Gizarte Zerbitzuen Zorroan sartutako prestazioak bateraezi-

nak izanen dira beren artean mendekotasunari arreta emateko arloan.

Dena dela, Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentuko kontseilariaren foru agindu baten bidez, prestazio horietako batzuen arteko bateragarritasuna erabakitzen ahalko da.

8. artikulua. Lankidetzaren funtseko gerakin esleitu gabeak.

2011ko aurrekontuko ekitaldian, Nafarroako Garapenaren aldeko Lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legearen 16. artikuluko 2. idatz-zatiaren aplikazioa salbuetsita, Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentuak Nafarroako Aurrekontu Orokorretan esleitutako lankidetzaren funtsean konpromisorik gabe dauden kredituak erabiltzen ahalko ditu.

Xedapen gehigarri bakarra. Arrisku bereziko osagarria ordaintzea.

Arrisku bereziko osagarriaren likidazioa, Foru Lege-Dekretu honen 2. artikuluan aipatua, 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera gauzatuko da.

Lehen xedapen iragankorra. Neurrien aplikazioa etxebizitza arloan.

1. Hirigintza eta Etxebizitzaren arloan Urgentziazko Neurriak hartzeko ekainaren 5eko 6/2009 Foru Legearen II. tituluko I. kapitulua, hirugarren xedapen gehigarria eta bigarren xedapen iragankorreko 1. idatz-zatia etxebizitzak barrenetik eraberritzeko behin-behineko kalifikazioa, alde aurreko bizigarritasun txostena edo laguntzak alde aurretik emateko eskaera Foru Lege-Dekretu honek indarra hartu baino lehen egin duten espedientei aplikatuko zaizkie.

2. Errentamendu araubideko etxebizitza babes-tuen edo Hirigintza eta Etxebizitzaren arloan Urgentziazko Neurriak hartzeko ekainaren 5eko 6/2009 Foru Legearen 6. eta 7. artikuluetan aurreikusitako laguntzen babeseko etxebizitzaren sustatzaileek, Foru Lege-Dekretu honek indarra hartzen duenean, behin-behineko kalifikazioa eskuratuta

izan dezaketen diru-laguntzaren %50 ordaintzeko eskatu ez badute, ezin izanen dute aurrerakin hori eskatu. Kasu horietan, espedientearen behin betiko kalifikazioa lortu ondoren hasiko da diru-laguntza emateko prozedura.

3. Hirigintza eta Etxebizitzaren arloan Urgentziazko Neurriak hartzeko ekainaren 5eko 6/2009 Foru Legearen 9. artikuluko 2. idatz-zatian xedatutakoa Foru Lege-Dekretu honek indarra hartu ondoren aurkezten diren eskaerei bakarrik aplikatuko zaie.

Bigarren xedapen iragankorra. Mendekotasunari arreta emateko arloko gizarte prestazioak aukeratzeko eskubidea.

Foru Lege-Dekretu honek indarra hartzean mendekotasunari arreta emateko arloko prestazio baten baino gehiagoren eskubidea onartua dutenek 2011ko abenduaren 31 arte eutsiko diote eskubide horri. Bitartean, bat aukeratu beharko dute, non ez den haien bateragarritasuna espresuki erabaki.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauak indargabetzea.

Foru Lege-Dekretu honek indarra hartzean, bertan xedatutakoari aurka egiten dioten maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak indargabeturik geldituko dira.

Azken xedapenetako lehena. Nafarroako Parlamentura igortzea.

Foru Lege-Dekretu hau Nafarroako Parlamentura igorriko da baliozkotu dadin, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 21 bis 2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarra hartzea.

Foru Lege-Dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean hartuko du indarra.

